

HITZA

Hondarribia **4**

Agenda5
Sonia Herce6-7

Irun **8**

Agenda9
Yon Gallardo10-11

Errenteria-Orereta **12**

Agenda13
Maika Martin14-15

Lezo **16**

Agenda17
Edurne Mitxeo18-19

Oiartzun **20**

Agenda21
Andoni Lizarralde22-23

Pasaia **24**

Agenda25
Juanma Perez26-27

Gabonetako agenda 2020

egin zaitez

HITZA *hida*



Harpidedun izateagatik,
baliatu gure webguneko
abantaila guztiak!

Sartu

Kode berri bat jasoko duzu, posta
elektroniko zein posta arrunt bidez.



Hasi saioa HITZA0DE gisa

Mezuek ez duzue HITZA0DE saioa ezarri eta HITZA0DE saioa ezarri behar duzue. **EREBURKUTU**

Hizteko izena:

Posta elektronikoa:

Posta arrunt:

SARTU



Sortu

Kode horrekin zer? Sartu
bidaso.hitza.eus edo
oarsoaldea.hitza.eus webgunetan.
Joan **sortu kontua** atalera.
Bete eskatutako datu **guztiak**.
HITZAkide zenbakia eskatzen duen
atalean, sartu aurretik jaso duzun kodea.
Bestalde, **pasahitza** ere sortu beharko
duzu. Hau zuk asmatutakoa izango da.
Dena bete ondoren, **sortu kontua** botoia
saka ezazu.



Hasi saioa HITZA0DE gisa

Mezuek ez duzue HITZA0DE saioa ezarri eta HITZA0DE saioa ezarri behar duzue. **EREBURKUTU**

Hizteko izena:

Posta elektronikoa:

Posta arrunt:

SARTU

Erabili

Kontua sortu ondoren, **HITZAkide** saioa
hasteko zure **posta elektronikoa** eta
aurretik sortu duzun **pasahitza** erabili
beharko dituzu.



• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Argitaratzailea:

Oiartzualdeko Hedabideak EM

Zuzendaria:

Urko Etxebeste

Sustapen arduraduna:

Bēñat Trigo Perez

Testuak:

Erik Salazar

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia

Lege gordailua:

ISSN-0793-03

Egoitza:

Irun kalea 8, 20100**Errenteria-Orereta**

Telefonoa:

943 34 03 30

Webguneak:

oarsobidasoa.hitza.eus**oarsoaldea.hitza.eus****bidaso.hitza.eus**

Posta elektronikoa:

oarsobidasoa@hitza.eus

Publizitatea:

Egoi Carrizo UrangaTel.: **647 354 254 - 943 34 03 30**

Bezero arreta / harpidetza:

943 30 43 46 - harpidetza@hitza.eus

2020a ez ahaztu, ikasi

Inoiz, inork jasan ez dituenak ekarri ditu elkarrekin, ia ezustean, 2020 urteak. Borrokatzeko ikusezina den birusa, isolamendua, bakardadea, gaixotasuna, mina eta samina. Gabonetan, martxoan hasi zen hura oraindik ere gurean izango da. Pandemiaren latzena, beharbada, atzean da. Baina ikasteko urtea izan da 2020a, ez ahaztekoa.

Orriotan Gabonei begirako edukiak aurkituko dituzte HITZAREN harpidedunek eta HITZAKIDEAK. Bi ezaugarri nagusirekin: batetik tokiko komertzioaren erradiografia egin nahi izan da herriz herrikako merkatari eta ostalarien ordezkariekin hitz egiten; bestetik, urte bukaeraren eta berriaren hasieraren arteko zubi diren egun hauetan etxetik kanpo zer egin daitekeen jasotzen saiatu da Bidasoko eta Oarsoaldeko euskarazko hedabidea. 'Saiatu gara' diogu berriz ere, aurtengoan ez direlako ohiko Gabonak izango, urtero an-

tolatzen diren hainbat ekitaldi ez direlako egingo, eta egingo direnetako asko, aldaketekin iritsiko direlako.

Pandemiaren garaiotan jende multzoak ekiditeko ahaleginari eutsi behar zaio, hori delakoan koronabirusaren kutsatzeen fokuetako bat. Hortaz, zaila izango da gure herrietan kalerik kale Mari Domingi eta Olentzero ikus-tea, Urte Zaharreko kopletan aritzen diren taldeen irmotasunaz gozatzea, edo zergatik ez, San Tomas Egunean faltan botako dugu txistorra otartekoa. Beraz, orriotan agertzen diren egitarauak, beti, osasun egoeraren menpe eta agintariek horren arabera hartzen dituzten erabakien baldintzapean daude.

2020an elkar zaintzeaz eta ondokoaren beharraz asko ikasi dugu. Data berezi hauetan horrela izan dadila, baita aurrerantzean ere. Zain zaitezte, eta egin harrera 2021 urteari tamainan. Irtsiko dira garai oparagoak.





Jaiotzek toki berezia izango dute aurtengo Gabonetan Hondarribian. HITZA

Osasun neurrien menpe

Hondarribian ere pandemiaren eragina sumatu da Gabonetako egitarauak prestatzerako garaian. Aktibitate asko urtetik urtera osatzen den zerrendatik erori egin dira, batez ere jende pilaketak sortzeko arriskua suposatzen duten horiek. Hori dela eta, aurtengo hondarribiarrek ezin izango dute San Tomaseko jaiaz gozatu, eta hilaren 31ko San Silbestre herri lasterketa jendetsua ere (Gipuzkoan jende gehientsuen biltzen duenetakoa da) bertan behera gelditu da aurtengoa.

Herrian egongo diren jardueren artean Jaiotzen Ibilbidea dago, egitarauaren barruko berritasunetakoa da. Urtarrilaren 7ra arte ikusgai egongo da udalerriko zazpi lekutan (Paradorean, Arma Plazan eta beste bostetan), Ttoparak

Kultur Elkartearen eskutik datorenerakusketa hau. Gipuzkoako Belenzaleen Elkartearen eta udalaren laguntza izan du Ttoparak jaiotzen zirkuitua antolatzeko.

Aurtengo ez ohiko Gabonetan aktibitate asko bertan behera geratu diren arren, hondarribia-

rrek badute Itsas Etxea Auditoriumean edo Zuloaga Etxean egongo diren aktibitateetara joatea, bertan aurreikusita dauden jarduerak gehienak mantentzen direlako. Hau da: herrian egunotan izango diren gehienek osasun neurrien araberako izaera izango dute.

Puntaleko Gaztelekuan bada zer egin

Puntaleko behin-behineko Gaztelekuan hainbat jarduerara antolatu dituzte gazteenek Gabonetako egunetan. Hasteko, bihar San Tomas jaia egongo dute. Ondoren, 22an, opariak nola egin daitezkeen ikasteko tailerrari ekingo diote. Hilaren 23an, berriz, zineforuma dute.

Olentzero eta Hiru Erregeak

Oraindik konfirmatuta ez dagoena da ea nola antolatuko diren aurtengo Olentzeroa eta Hiru Erregeak.

Eusko Jaurlaritzak ohikoak diren kabalgatak debekatu ditu aurtengoa, eta Hondarribian lanean jarraitzen dute egoera honi irtenbide bat bilatzeko, etxeko txikiek modu seguru batean gozatu ahal izateko.

Beraz, oraindik ere zehazteko dago ea herrian Olentzeroren etorrera zer nolakoa izango den, bai eta Errege Magoena ere.

Urtarrilaren 7ra arte.

Jaiotzen ibilbidea egiteko aukera. Gabonetako jaiotzak ikusgai daude Paradorean, Arma Plazan, Leiza zapata dendan, Pascua arropa dendan, Gaztelu arropa dendan, Mar arropa dendan, Malentxo mertzerian, Federopticosen eta Alzaga janari dendan.

Hilak 19, larunbata

11:15. Zuloaga Etxea liburutegian, gaztelaniazko irakurketa taldearen bilkura Pierre Bost egilearen *Un domingo en el campo* eleberria jorratzeko.

17:30. Itsas Etxean, Glu Glu Producciones konpainiaren *Botadun katua* ikuskizuna. 3 euro.

18:00. Puntaleko Gaztelekuan, San Tomas jaia.

Hilak 20, igandea

12:30. Itsas Etxean, Hondarribia Hiria Musika Bandaren Gabonetako kontzertua.

19:00. Portuko elizan, Xatz Eskifairen kontzertua.

Hilak 21, astelehena

19:00. Itsas Etxean, Herriko emakumeak plazara dokumentala. Aldez aurretik gonbidapenak jasotzea ezinbestekoa da.



Hilaren 27an, Losers antzezlana Itsas Etxean. TXALO PRODUKZIOAK

Hilak 22, asteartea

18:00, 18:30, 19:00 eta 19:30. Kasino Zaharrean, Gabonetako videomaping-a.

12:00. San Pedro kalean, Pilar Peñaren akademiako ikasleen dantza emanaldia.

18:00. Puntaleko Gaztelekuan, opari tailerra.

Hilak 23, asteazkena

18:00. Herrian barrena, Olentzeroren kartak jasoko dituzte haren laguntzaileek. Ekitaldia zein formatutan egingo den ez dago zehaztuta oraindik. Osasun ego-

eraren arabera aldaketak izan ditzake ekitaldiak. Adi egoteko eskatu diete herritarrei.

18:00. Puntaleko Gaztelekuan, Gabonetako zineforuma.

Hilak 26, larunbata

17:30. Itsas Etxean, familia zinema.

Hilak 27, igandea

19:00. Itsas Etxean, Txalo Produksioak taldearen *Losers* antzezlan. Sarrera orokorra: 8 euro; 18 urtetik beherakoentzat: 4 euro.

Hilak 29, asteartea

11:30. Zuloaga Etxea liburutegian, Maite Frankoren ipuin kontaketa (4-7 adin tartekoentzat).

19:00. Itsas Etxean, Sand & Soulshine Voices taldearen kontzertua. 3 euro.

Urtarrilak 4, astelehena

18:00. Errege Magoen postariak gutunak jasoko dituzte herritik zehar. Ekitaldia zein formatutan egingo den ez dago zehaztuta oraindik. Osasun egoeraren arabera aldaketak izan ditzake ekitaldiak. Adi egoteko eskatu diete herritarrei.



Sand & Soulshine Voices hilaren 29an izango da Hondarribian. HITZA

«Hondarribira gauza berezien bila dator jendea»

SONIA HERCE AMUITZ MERKATARIEN ELKARTEKO IDAZKARIA

Zaldunbordako outlet-a eta Amazon bezalako erraldoiak tokian tokiko merkatarienezako arriskutsuak direla uste du Sonia Hercek, eta lanpostu prekarioak sortzen dituztela salatu du.

Nola bizi dute udalerriko merkatariak egungo egoera pandemikoa?

Gogorra izan da egoera pandemikoa, batez ere hasieran dena itxi zutenean. Ez genekien noiz irekiko genituen dendak, edo ea irekitzeko aukera izango genuen. Pixkanaka irekitzen joan ginen, hasieran alde zuzeneko hitzorduekin eta gero ordutegi mugatuarekin. Gogorra izan da eta izaten ari da oraindik.

Momentu honetan ostalaritza izan daiteke gaizkien pasatu duena, hilabete bat izan dituztelako euren negozioak itxita. Egia da udan nahiko ondo egin zutela lan, baina azken asteetan oso kaltetuak izan dira. Bestetik, arropa dendek ere oso gaizki pasatu dute. Hondarribiko bezero kopurua mugatua dago sektore honetan, eta udalerririk itxita egon direnez oso zaila zen saltzea. Orain Gabonetako kanpaina ea martxan jartzen den itxaroten gabiltza.

Nola aurreikusten duzue, beraz, aurtengo Gabonetako kanpaina berezia?

Azken asteak zailak izan dira, komentatu dugunez udalerririk itxita zeudelako. Orain, udalerririk arteko mugikortasuna baimenduta dagoela, pentsatzen dut lagungarri izango dela, Hondarribira esaterako Berako eta Lesakako jendea etortzen zaigu-



lako erosketak egitera. Inguruko jende dezente etortzen da gurera, baina egoera eta arauak zirela-eta oso mugatuta izan dugu dena. Beraz, hartutako erabakiek Gabonetako kanpainan, gure kasuan, eragina izan-go dutela argi dago.

Kanpotik Hondarribira bai, baina Hondarribia herri txikia izanda, ba al dute hondarribiarrek herrian bertan erosteko ohitura, edo askok aprobetxatzen dute Irun hiri handiagoa dela bertan erosketak egiteko?

Uste dut azken urteetan justu kontrako fluxua eman dela kasu askotan. Hondarribian denda dezente ireki dira, eta aitortu beharra dago Irundik jende asko etortzen dela gure herrira. Bezeroek askotan komentatzen dute Irunen frankizia edo mota horretako denda asko gelditu direla, eta Hondarribira etortzen direla gauza berezien bila. Guk merkatarari moduan fluxu hori nabaritu izan dugu.

Egia da Hondarribitik Irunera edo Donostiara ere jotzeko ohitura dagoela, gure herria txikiagoa delako eta eskaintza txikiagoa da ere. Batzuk kanpora joaten dira hemen topatzen ez dituzten gauzen bila. Baina esandakoa, kanpotik jende asko dator, egun pasa egitera etortzen direnak eta, bide batez, hemen kontsumitzen edo erosten dute.

Hondarribiko Udalak berehala ezagutarazi zituen diru laguntzak COVID-19ak eragindako egoerari aurre egiteko. Bidasoa-Oarsoaldeko laguntza handienak izan ziren, baina... nahikoak?

Ez, inoiz ez dira nahikoak. Oraintxe bertan diru laguntzak ez dira nahikoak. Jende asko oso gaizki pasatzen ari da. Gainera, gure kasuan oso berandu heldu ziren laguntzak. Esan

“

«Udalerrien arteko mugikortasuna baimentzea onuragarria izan da guretzat»

• • • • •

«Badakigu udalak mugatuta daudela, baina uste dut gehiago egin daitekeela»

• • • • •

«Zaldunbordako proiektua ez da ona ez merkatarientzat, ezta ingurumenerako ere»

• • • • •

beharra dago egun ia gehienek kobratu dituztela diru laguntzak, baina tramitazioa oso mantsoa izan zen, eta kudeaketa ere zaila izan zen. Gure kasuan, badugu beste negozio bat Errenterian, eta bertan diru laguntza askoz lehenago kobratu genuen. Hori bai, Hondarribiko Udalak bonuen kanpainarekin aurrera eramandako inizatiba ona izan dela esan beharra dago. Eusko Jaurlaritzaren bonu denda kanpainarekin bat eginez, diru gehiago sartu zuen Hondarribiko Udalak gehigarri moduan bonu horiek Hondarribiko dendetan gastatu ahal izateko, modu horretan tokian tokiko salmentak bultzatzeko asmoarekin. Nahikoa? Tira, badakigu udalak mugatuta daudela, baina uste dut gehiago egin daitekeela.

Zalaparta handia sortu zuen ere Zaldunbordako outlet-aren proposamenak. Nola hartu zuten merkatariek proiektuaren berria?

Gaizki hartu genuen. Zaldunbor- da Gelditu mugimenduarekin hainbat jarduera egin genituen, Hondarribiko dendetan kartelak jarriz eta ostegunero elkarretartzeak eginez. Beldurra izan genuela, eta dugula, aitortu behar dugu. COVID-19aren egoera agertu baino lehenago merkatarari txikien egoera zaila bazen, mota honetako erraldoi batekin zer esanik ez. Lanpostu prekarioak sortuko dira, eta ez da ona ez merkatarientzat ezta ingurumenerako ere. Hasieratik agertu gara Zaldunbordaren kontra.



itxaski

ITSASOKO PRODUKTUAK

LANPERNA • TXIRLA • OSTRA
ZIGALA • TXANGURROA • ZENTOILOA
ABAKANDOA • OTARRAINA

Gabarrari Kalea, 5. 20280 Hondarribia.
T 943640838 / M 667407505
maddi@itxaski.net - www.itxaski.net



Hilaren 27ra arte izango da irekita Zabaltza plazako Gabonetako azoka. 12 postu jarriko dituzte. HITZA

Egunero bada zerbait Irunen

Ez dira betiko Gabonak izango Irunen, ez inon. Batetik, ohikoak diren hainbat ekitaldi bertan behera gelditu, edo eraldatu behar izan direlako. Bestetik, COVID-19aren eragina oraindik nabaria da, eta horren barruan osasun agintariak ezarritako neurriak bete behar direlako hainbat aldaketa izango dira etxeetan, kafean, eta ekitaldiak antolatu diren tokietan.

Egingo ez direnen artean, herri jai handi bat: San Tomas Eguneko jaia. Astelehenean izango zen egitekoa Urdanibia plaza eta Mosku ingurua baserriarren jantziz betetzen dituen ekitaldia. Baina aurretik etetea tokatu da. Ez da kome-nigarria jende multzoak pilatzea, eta horregatik urteko jairik prezia-tuenetakoak ez du tokirik izango irundarren agendan. Pena.

Horren harira, iaz presoan aldeko futbito txapelketa berreskura-

tu zuen Sarek. 2019ko ekitaldia oso arrakastatsua izan zen. Baina hura ere ezin izango da egin. Antolatzaileek, baina, adierazi dute San Tomas Futbito Txapelketa Saria emateko asmoa dutela, eta

Oiasson, Gabonak erromatar erara

Oiasso Erromatar Museoa-ko antolatzen ditu familientzako, eta bereziki haurrentzako jarduerak Gabonetan. Aurretik ere hala izango da. Besteak beste, Irugurutzetara eta Ama Xantalenera bina bisita gidatu antolatu dituzte. Gainera, Oiasson bertan, erromatar mosaikoen eta kaskoen tailerrak egingo dituzte, haurrei begirakoak. Oiassortu familientzako margoketa lehiaketa ere prestatu dute erromatarren museokoek urtarrilaren 5erako.

aurki jakinaraziko dutela nori emango dioten. Aldi berean, Sarek irundarrak deitu ditu elkartzun kilometroak egitera, presoak Euskal Herrira hurbil ditzatela eskatzeko.

Azoka

Koronabirusaren eragina gehientzuen jasan dutenak hiriko merkatari eta ostalariak izan dira. Azken hauek, mugekin, baina negozioak irekitzeko aukera izan dute. Merkatariak, ordea, Gabonetan izango dute aukera euren produktuak saltzeko: gaurtik hilaren 27ra bitarte Zabaltza plazan Gabonetako azoka jarriko dute, iaz baino postu gehiagorekin, hamabi orotara. Hori bai: aurretik izotz pistak kale.

Bestalde, Betti Gottik antolatuta, Olentzero eta Mari Domingi hilaren 23an izango dira haurrei harriera egiten Amaia KZn. Urtarrilaren 4 eta 5ean, Errege Magoak Ficoban.

Urtarrilaren 7ra arte

Azoka. Zabaltza plazan Irungo merkatarien postuekin azoka jarriko dute. Gabonetako jaiegunetan kenduta, egunero izango da zabalik goizez eta arratsaldez.

Hilaren 18tik urtarrilaren 4ra arte

Erakusketa. Amaia KZn, jaio-tzen erakusketa. Ordutegia: asteartetik larunbatera 18:00-21:00; igande eta jaiegunetan 11:30-13:30.

Hilaren 18tik otsailaren 21era arte

Erakusketa. Menchu Gal aretoan, Jesus Mari Cormanen *Salvajera* erakusketa. Ordutegia: ostiral eta larunbatak: 18:00-21:00; igande eta jaiegunak: 11:30-13:30; 24, 25 eta 31n nahiz urtarrilaren 12ean itxita dago.

Hilaren 19, 26 eta urtarrilaren 2an

11:00. Oiasso Museotik, Iruguru-tzeta bisitatze trenaren irteerak. Helduak: 5,50 euro; gazteak: 3,85 euro.

Hilaren 20, 27 eta urtarrilaren 3an

11:00. Oiasso Museotik, Irun erromatarretik zeharkaldiak, TIR aplikazioarekin. Helduak: 5,50 euro; gazteak: 3,85 euro.

Hilaren 21etik urtarrilaren 4ra

Erakusketa. Palmera Monteron, trenen maketen erakusketa. Ordutegia: astearte, asteazken eta ostegunetan: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00; igandean, 10:00-14:00.

Hilak 19, larunbata

19:30. Menchu Gal aretoan, Myriam Perez Kazabonen dantza garaikide ikuskizuna, Gonbidapena behar da.



Sun magoak hilaren 29an egingo du saioa Amaia KZn. HITZA

Hilak 20, igandea

12:30. Menchu Gal artoan, Myriam Perez Kazabonen dantza garaikide ikuskizuna, Gonbidapena behar da.

Hilaren 22 eta 23an

12:00, 16:00 eta 18:30. Amaia KZn, *Olentzeroren etorrera* ikuskizuna. Doan da, baina aurrez erreserba hartu behar da Irungo Udalaren webgunearen bitartez. Hiriko hainbat gunetan Olentzerori gutunak emateko postontziak jarriko dituzte.

Hilak 22, astearte

11:00. Oiasso Museoa, mosaiko erromatarrek egiteko tailerra (6-12 urte). 4 euro.

Hilak 23, asteazkena

11:00. Oiasso Museoa, kasko erromatarrek egiteko tailerra (8-12 urte). 4 euro.

Hilak 26, larunbata

17:00. Bizinema Bang Bang-en saioa: *Hook* eta *Pesadilla antes de Navidad*. 5,50 euro.

19:30. Menchu Gal aretoan, Jonathan Mesonero biolin jotzailearen kontzertua.

Hilak 27, igandea

12:30. Menchu Gal aretoan, Jonathan Mesonero biolin jotzailearen kontzertua. Gonbidapena behar da.

17:00. Amaia KZn, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen *Xagurroski kondea* ikuskizuna. 4,40 euro.

Hilak 28, astelehena

19:00. Amaia KZn, Irun Kultura Km0 egitasmoaren gala. 4,40 euro.

Hilak 29, astearte

11:00. Oiasso Museoa, mosaiko erromatarrek egiteko tailerra (6-12 urte). 4 euro.

19:00. Amaia KZn, Sun magoaren *Houdini, el mago del club* ikuskizuna. 7,75 euro.

Hilak 30, asteazkena

11:00. Oiasso Museoa, kasko erromatarrek egiteko tailerra (8-12 urte). 4 euro.

19:00. Amaia KZn, Irun Kultura Km0 egitasmoaren bigarren gala. 4,40 euro.

Urtarrilaren 4 eta 5ean

Ficoban. Errege Magoak ikusteko aukera. Urtarrilaren 4an 16:00etatik 19:40era 20 minutueko; urtarrilaren 5ean goizez 11:00-12:40 tartean, eta arratsaldez 16:00-18:40 tartean.

Urtarrilak 5, astearte

Egun osoan. Oiasso Museoa, Oiassortu pintura lehiaketa gazte, heldu eta familientzat. Izen ematea: 2 euro.

Irun

Nolako da gaur egun Irungo merkataritzak bizi duen egoera?

Azken urteetako egoera txarra da Irunen. Badira ireki berri dituzten negozio batzuk, baina balantze orokorra egiten bada, orokorrean komertzioen kopurua gutxira doa. Alde horretatik, aisialdiak zetikusi handia dauka fenomeno honekin. Oso ohituta gaude politak diren lekuetara joatera eta, bide batez, bertan gaudela zerbait kontsumitzen edo erosten dugu. Irungo kasuan, paseatzeko atseginak diren udalerrri askotaz inguratuta gaude, eta horrek Iruneri kalte egiten dio.

Irungo hiriari egunerokotasuna politagoa, dibertigarriagoa eta atseginagoa izatea falta zaio. Egia da udalerritik ez ateratzeko arauak kasu askotan onuragarriak izan direla, jendea Irunen gelditu behar izan delako. Baina mugan dauden komertzioetan arazo asko izan dira, bezero asko Ipar Euskal Herrikoak direlako eta ezin izan dutelako Irunera etorri.

COVID-19ak aldaketa ugari ekarri ditu. Irungo tokian tokiko saltzaileek zer nolako oztopoak izan dituzte?

Oztopo nagusia merkataritza guztientzat ziurgabetasuna izan da. Datozen egunetan etor daitezkeen debekuak, edo egoera hobera edo txarrera doan ez jakitea arazo larria izan da askorentzat. Gremio bat aipatzeagatik, argazkilaritzako profesionalak jasan dutena aipatu nuke. Egun oso ezkontza edo jaunartze gutxi ospatzen dira. Hortaz aparte, diru laguntzetatik at gelditzen dira zerbitzuetako sektorean sartzen direlako. Arropa dende ere beherakada nabarmena jasan dute.

Bestetik, aldez aurretik zeuden arazo batzuk areagotu dira, digitalizazioarena, esaterako. Merkataritza asko pandemiaren arazoarekin jabetu dira sarean egotearena

«Pandemiak merkataritzaren digitalizazioa bultzatu egin du»

YON GALLARDO**BIDASHOP MERKATARIEN ELKARTEKO
PRESIDENTEORDEA**

Irungo merkatarien egoera onena ez dela aitortuta ere, itxaropenarekin eta ilusio handiarekin hartu du aurtengo Gabonetako kanpaina.

HITZA

behar-beharrezkoa dela, eta lan handia egin dute gehienek oztopo hori aliatu bihurtzeko.

Zer motatako ekarpenak egiten ditu Irungo Udalak bertako komertzioak laguntzeko? Nahikoa al dira ezarritako laguntzak, edo babes gehiago eskatzen al duzue?

Diru laguntzei dagokionez, mota ezberdinetako laguntzak daudela esan genezake. Batetik, ohikoak diren laguntzak alokairuak eta

horrelakoak ordaindu ahal izateko; eta bestetik, pandemiari aurre egiteko martxan jarri diren laguntzak aurki daitezke. Horietako batzuk zuzenak izan dira, eta 900 eurotik 1.300 euro artera iritsi dira, gehigarriak batuta. Aipatutako diru laguntza hauek kobratuta daude dagoeneko.

Bestetik, COVID-19a dela-eta inbertsioak egiten dituzten merkatariei ere laguntzak eman dizkiete, esaterako, manparak insta-



“

«Mugan saltzen duten merkatariak arazo larriak izan dituzte»

• • • • •

«Hurrengo urtean, tokian tokiko negozioen salmenta ahalbidetuko duen online plataforma jarriko da martxan»

• • • • •

«Jendeak zerbait behar izatekotan, Irunen topatzeko aukera du»

• • • • •

latzeko. Laguntza hauek 2.000 eurora arte heldu dira gehienez negozio bakoitzeko. Badago nabarmendu beharreko inizatiba bat, berehala publiko egingo dena. Irungo tokian tokiko negozioen salmenta ahalbidetuko duen online plataforma bat martxan jartzeko asmoa dago, hain zuzen ere.

Aurtengo Gabonetako kanpainaren berezi samar honetan, presatuta al dago Irungo komer-

tzioa saltzaile eta saltoki handiei aurre egiteko?

Aurtengo Gabonetako kanpainan gutxiago salduko dugula aurreikusten dugu. Baina gogotsu hartzen dugu kanpainaren, jendeak produkturen edo zerbitzuren bat behar izatekotan ziurrenik Irungo tokian tokiko dendetan topatuko dutela gogoraraziz.

Irundarrek gure lokaletan eros-tea espero dugu, azken batean denok garelako bizilagunak eta lagu-

nak. Oso inportantea da gure dirua non inbertitu nahi dugun pentsatzea, modu horretan hirian gertatzen den ekonomia biribila bultzatzen dugulako. Alde horretatik, merkatariak ahalegin handiak egiten ari dira, batez ere etxera eramateko zerbitzuak martxan jarri eta horri jarraipena emanez. Bezeroek eskatzen dituzten erraztasunak eskaintzea da gure helburua, eta horretan ahaleginduko gara Gabonetako kanpainaren bitartean ere bai.

Elur malutak iritsi dira

C OVID-19aren eraginpeko Gabonak tokatu dira, eta garai zailak diren arren, herriek kolorea, argia eta ilusio pixka bat behar dituzte. 2020an asko ikasi dute errenteriarrek elkar zaintzaz eta kondiziorik gabeko elkartasunaz. Orain, betiere egoerara egokituta, gozatzeko unea da. Gabonak dira.

Ez da San Tomaseko ospakizunik izango (baserritarrez janzteko eta txistorra jateko deia egin dute), eta Mari Domingik eta Olentzerok euren urteroko jarduna aldarazi behar izan dute, eta adibidez, Gabon Kantu Sariketa eta San Silbestrea birtualak izango dira. Baina egingo dira.

Eraldaketa jasan duten ekitaldien artean dago Lau Haizetararen Mari Domingi eta Olentzeroren jarduera. Herritik ezin izango dute birarik egin (beste Olentzerok ere ez), eta hilaren 23an (16:00-20:00) eta 24an (08:00-12:00) izango dira Merkatuzarren haurren gutunak jasotzeko prest. Baina erne: horretara joateko alde zaurretik txanda hartu behar da (Herri Biziaren webgunean hartu behar dira), eta antolatzaileek jakinarazi dute, txanda horiek errespetatzea ezinbestekoa dela jende pilaketarik sor ez dadin. Aldi berean bertan egongo diren boluntarioei kasu egiteko eskatu dute.

24an, goizez, Fanderiako Agustina Otaola pilotalekuan eta Beiraungo frontoian ere izango dira Mari Domingi eta Olentzero umeen gutunak jasotzeko prest.

Kultur Malutak

Errenteriako Udalak, herriko askotariko eragileekin elkarlanean, Gabonei baino, 2020aren bukarari eta 2021aren hasierari begira-



Lau Haizetararen Mari Domingi eta Olentzero, aurtten, Merkatuzarren.

ko kultur egitarau oparora antolatuko du: Kultur Malutak. 40tik gora dira egitasmo horren barruan antolatu dituzten ekintzak, askotarikoak gainera: musika, antzerkia, zirkua, dantza, haurrentzako aisialdiak...

Pandemiagatik kaltetuen izan

direnak herrian negozioak dituztenak izan dira, orotariko establezimenduak oro har. Horien pizgarri, bonuen kanpaina berezia abian da, eta aldi berean, Errenkoaldek webgunea sortu du onlainerosketak egiteko. Horiek baliatzea, herria laguntzea da.

Hilak 18, ostirala

17:00 eta 18:30. Niessenen, Elira-leren *O!* dantza ikuskizuna.

Hilak 19, larunbata

12:00. Madalenaren basilikan, *3,2,1 Musikart!* kontzertua, Landerbaso Abesbatzarena.

19:00. Niessenen, Eztenaren barruko *Satiro* eta *Erresistentzia arazo fisikoa da* antzezlanak ikusteko aukera.

19:45. Fatimako Andra Mariaren elizan, Andra Mari Abesbatzaren kontzertua.

Hilak 20, igandea

17:00 eta 18:30. Fatimako Andre Mariaren elizan, *Erreterriako damak* kontzertua Kontari-Landerbasoren eskutik.

18:00. Niessenen, La Coja Dansaren *Deshielo* dantza ikuskizuna.

Hilak 21, astelehena

12:00 eta 17:00. Agustina Otaola frontoian, Markeliñeren *Crusoe* ikuskizuna.

Hilak 22, asteartea

17:00 eta 18:30. Familia Ludoteka Kalean, Koldo Mitxelenako patioan.

19:00. Niessenen, Eztenaren barruko *Panpina* antzerkia eta Erika Olaizolaren performancea.

Hilak 23, asteazkena

12:00 eta 17:00. Agustina Otaola frontoian, UpArte akrobazia eta zirku taldearen *Aureo* ikuskizuna.

16:00-20:00. Lau Haizetararen Olentzero eta Mari Domingi Merkatuzarren. Txandak ezarri dira, eta horiek errespetatu behar dira.

17:00 eta 18:30. Familia Ludoteka Kalean, Koldo Mitxelenako patioan.

Hilak 24, osteguna

08:00-12:00. Lau Haizetararen Olentzero eta Mari Domingi

Merkatuzarren. Txanda hartu behar da.

17:00-19:00. Olentzerok gutunak jasoko ditu Kaputxinoetako Gamon ikastetxean.

18:00. Ereintzaren Gabon Kantentxapelketako abestien bideo emanaldia.

18:15. Fanderiako frontoian, Olentzerok gutunak jasoko ditu. Txanda hartu behar da.

Hilak 26, larunbata

17:30. Agirre Lehendakariaren plazan, Sareren Gabonetako ekitaldia egingo dute.

Hilak 27, igandea

12:00. Fatimako Andre Mariaren elizan, *Beethoven 250. Eine deutsche Messe* izenburuko kontzertua Andra Mari Abesbatzaren eskutik.

18:00. Madalenaren basilikan, *Peace and Love* Dizkizka Abesbatzaren kontzertua.

Hilak 28, astelehena

16:00 eta 18:00. Niessenen, Sun magoaren saioak.

19:00. Madalenaren basilikan, *Harmonia ederrean* kontzertua Ars Canendirekin, Itziar Beitia-ekin eta Ainhoa Lopez de Muñainekin.

Esti eta Mikel Markezzen kontzertua hilaren 30ean da. E. ETA M. MARKEZ**Hilak 29, asteartea**

17:00 eta 18:30. Familia Ludoteka Kalean, Koldo Mitxelenako patioan.

19:00. Niessenen, Eztenaren barruko emanaldi sorpresa.

Hilak 30, asteazkena

17:00 eta 18:30. Familia Ludoteka Kalean, Koldo Mitxelenako patioan.

18:00. 74. Gabon Abesti Sariketa Probintzialaren bideo emanaldia.

19:00. Niessenen, Esti eta Mikel Markezzen kontzertua.

Urtarrilak 2

12:00 eta 17:00. Beraungo frontoian, Hortzmuga taldearen *Jule* antzerkia.

Urtarrilak 4

12:00 eta 17:00. Beraungo frontoian, The Funes Group taldearen *Aukera* zirku ikuskizuna.

Urtarrilak 5

17:00 eta 19:30. Niessenen, Zetak taldearen kontzertua.

Egunean zehar. Merkatuzarren, Beraungo pilotalekuan eta Agustina Otaola frontoian, Errege Magoei gutunak emateko aukera.



«Jendearen sentsibilizazioa ezinbestekoa da aurrera egin ahal izateko»

MAIKA MARTIN

ERRENKOALDE MERKATARIEN ELKARTEKO
PRESIDENTEA

Errenteria-Orereta Oarsoaldeko udalerrri handiena izatea lagungarri dela onartu du Errenkoaldeko buruak, horrek inguruko bezeroak ekartzen dituelako, baina merkataritzaren egoera dela-eta kezkatuta dago.

Nola dago egun Errenteria-Oreretako komertzioaren egoera? Ba al dakizue ea pandemiaren kontuagatik komertzioak itxi al diren herrian, egoerari aurre egin ezin zutelakoan?

Elikadurara dedikatzen diren merkatariak ez dira hain kalteak atera, lehentasunezko zerbitzua direnez lokalak irekita izan dituztelako pandemia osoan. Badira beste sektore batzuk ere nahiko ondo mantendu direnak, etxerako tresnak saltzen dituztenak, esaterako.

Baina arropa dendeak, adibidez, beherakada handia sumatu dute. Egoera oso ezberdina da gremioaren arabera. Jakin bada-kigu Errenterian hainbat negozio itxi dituztela. Elkarte moduan gure bazkideen egoeraren jakinaren gainean gaude soilik, baina horrek ez du zertan esan nahi gehiago itxi ez direnik. **Errenteria-Orereta Oarsoalde-**



ERIK SALAZAR

ko lehen herria izan zen COVID-19ari aurre egiteko diru laguntzak publiko egiten. Nola baloratzen dituzue?

Errenteriako Udalak publiko egin zituen diru laguntzak goiz atera ziren, eta aitortu beharra dago ere berehala kobratu zirela. Gure aldetik balorazio oso positiboa egiten dugu.

Itxialditik ateratzen ari ginen, negozio asko bi hilabetez itxita egon ondoren, eta askorentzako lasaitasuna ekarri zuten diru laguntza horiek. Nahikoak al diren? Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru laguntzak agian bazuentzat nahikoak izan dira, berehala bueltatu zirelako lanera. Baina beste negozio batzuei gehiago kostatu zaie martxan jaritzea, eta agian beraientzat ez dira nahikoak izan.

Bestetik, udalak bonuak banatu ditu herriarren artean herrian erosketak egin ahal izateko. Baliagarria al da bonuena bezala-

“

«Udalaren laguntzak eta bonuak oso baliagarriak izan dira»

• • • • •

«Udalerritik ez ateratzeko debekuak, bertako bezero gehiago ekarri ditu»

• • • • •

«Ziurgabetasuna da gure kezkarik handiena, ezin dugu aurreikuspenik egin»

• • • • •

ko inizatiba bat merkataritzari bultzada emateko?

Bonuak pizgarri handia izan dira, eta asko nabaritu da. Udan atera zuten bonuen lehenengo sorta eta oso ondo funtzionatu zuen. Orain beste bigarren txanda bat atera dute, eta espero dugu aurrekoan bezala tokian tokiko salmenta bultzatzeko baliagarriak izatea. Udalarekin elkarlanean gaude, eta badakigu euren aurrekontua mugatua dela, eta beti beraien esku dagoen guztia egiteko asmoa dutela. Alde horretatik egiten ari diren ahalegina handia dela nabarmentzekoa da.

Errenteria-Orereta Oarsoaldeko herri handiena izanik, eta komertzioaren sektorea hain zabal izanik, herritik kanpoko jendea dator bertara erosketak egitera?

Bai, hala da. Errenterian dagoen eskaintza handiagoa da, eta horrek gure inguruan bizi diren beste udalerrietako bezeroak erakartzen ditu.

Zoriturrez, udalerritik ez ateratzeko debekuarekin bezero hori galtzen da, baina berehala berreskuratzen da debekua altxatzen denean. Hori bai, pandemia dela eta asko nabaritu dugu Errenteriako bizilagun gehiago gerturatu direla gure lokaletara erosketak egitera. Herrian jende asko bizi da, eta lehen ez ziren gugana gerturatzen horietako asko. Joera hori aldatu egin dela esan genezake. **Nola aurreikusten duzue izango dela aurtengo Gabonetako kanpaina?**

Momentuko araudiaren arabera joango da. Hau funtsezkoa izango da salmenten eta bezeroen kopurua aurreikusterako garaian. Ez dakigu ea ekitaldirik egongo diren Gabonetan.

Gisa horretako jarduerak egitea debekatzen bada, jendea gutxiago aterako da bere etxeetatik, eta ondorio bezala kontsumoa baxuagoa izango da. Jendearen sentsibilizazioa, adibidez, oso lagungarria izaten ari da azken asteetan, kontuan hartzen gaituztelako erosketak egiterako garaian, eta horrek bultzada handia suposatzen du herriko establezimenduentzat.

 Bizarain HH, LH eta DBH (2-16 urte)	
Bizarain Ikastola (HH eta LH)	Bizarain Institutua (DBH)
<ul style="list-style-type: none"> • Goiz txokoa (7:00-9:00), jangela, garraloa • www.bizarain.eus • Tel. 943 341 645 	<ul style="list-style-type: none"> • Jangela, Hauspea, eskolaz kanpoko jarduerak • www.bizarainbhi.eus • Tel. 943 344 370

Eguberrietan, kultura

Gabon berezi haue-
tan ahalegin han-
diak egin dituzte
Lezoko eragileek
eta udalak herrian
ohikoak izaten diren ekitaldiak
mantendu ahal izateko, egoera
pandemikoak baimentzen duen
bitartean. Aurreko urteetan ohi-
koak izaten ziren ekitaldi batzuk
bertan behera gelditu dira, eta
beste askok aldaketak egin behar
izan dituzte koronabirusak eragin
duen egoerari aurre egin ahal izate-
ko. Hala eta guztiz ere, adin guz-
tietako herritarrentzat askotariko
egitaraua eskainiko du Lezok Ga-
bonetan, batez ere kultur jardue-
rekin lotura dutenak.

Alde horretatik, hitzordu nagusi-
ena Kultur Aretoan hilaren
14ean hasi zen Euskal Liburu Azo-
ka izan da. Gaur eta bihar izango

dira azokaz gozatu ahal izateko
azken egunak. Gaur, hilak 18, goi-
zez eta arratsaldez egongo da azo-
ka zabalik (11:00-13:00 eta 17:00-
19:00). Bihar, ordea, soilik goizez
egongo da irekia. Bertara joan
ezin dutenek, erosketak online
egiteko aukera izango dute.

Bestetik, arte eszenikoek ga-
rrantzi berezia izango dute Egu-
berrietako egitarauaren barruan.
Gezala Auditoriumaren berotasu-
nean, hainbat saio antolatu dituzte,
horien artean *Oilar bat dago
zure teilatuan* (gaur, haurrentzat)
edo *Zoaz bake santuan* (hilaren
20an, helduentzat) beste batzuen
arte.

Gazteenentzat

Ohikoa izaten den bezala, txikiek
ere lekua izango dute Gabonetako
egitarau berezi honetan. Hasteko,

Jai Batzordeak iragarri du hilaren
23rako sorpresa berezi bat presta-
tzen ari direla haurrentzat. Beraz,
adi egon daitezela eskatu dute.

Umeei zuzendutako egitarauak
urtarrilean jarraituko du, Pirritx,
Porrotx eta eta Marimotots paila-
zoen ikuskizunarekin. Bekoerota
kiroldegian izango da urtarrilaren
5ean, *Amaren intxaurrek* saioa
emango dute, aforo mugarekin.
12:00etan da saioa, jada Lezoko
Gabonetan bakarrik ez, Oarsoal-
dekoan ere klasiko bihurtu dela-
rik.

Gabonetakoak bukatuta, urta-
rrilean ere kultur egitarau osatua
izango da Lezon, Kultura Sailak
antolatua. Horien artean izango
dira Rafa Ruedaren (urtarrilaren
14an) eta Liher taldearen (urtarri-
laren 28an) kontzertuak. Beste
asko ere badaude.



Euskal Liburu Azokak bihar itxiko
ditu ateak. Gaur goizez eta arratsaldez
da zabalik, bihar goizez. HITZA

OrriBakar literatur lehiaketako sariak banatu dituzte

Lezoko Udal Liburutegiak OrriBakar literatur lehiaketaren zazpigarren edizioa antolatu du herriko 6 eta 15 urte bitarteko haurrentzat. Parte hartzaileek edozein genero literarioko lanak aurkeztu dituzte, betiere orrialde bakar batean idatzita eta euskaraz. Aurten, osasun krisialdia medio, ez da sari banaketa ekitaldirik egin, baina saridunek liburuak erosteko 100 euroko txartel bana jaso dute udal liburutegian. Hona-

- koak izan dira irabazleak:
- (6-7 urte) Aketi Arrastua
Susperregi: *Joxe eta behia*.
- (8-9 urte) Ane Askasibar Lope-
tegi: *Perretxiko magikoak*.
- (8-9 urte): Uxuri Urkizu
Salaberria: *Pultsera magikoa*.
- (10-11 urte): Hegoa Illarreta
Beñaran: *Afrikako hodeiak*.
- (10-11 urte): Jimena Olmos
Altube: *Bakarrik*.
- (12-13 urte): Ibon Arribas
Alvarez de Eulate: *Margolaria*.
- (12-13 urte): Aitana Huici
Moran: *Mundua salbatu zuten
haziak*.
- (12-13 urte) Ane Jaunarena
Cereijo: *Bizi ala iraun*.
- (14-15 urte): Naroa Jimenez
Mouriño: *Ez gara mutu
geratuko*.
- (14-15 urte): Naia Malmierca
Silvan: *Haizeak eramaten
nauen tokira*.



Urtarrilaren 5ean ez dute hutsik egingo pailazoek Bekoerrotan. HITZA

Hilak 18 eta 19.

Euskal Liburu Azoka. Kultura Aretoan, eta Jai Batzordeak antolatua, Euskal Liburu Azoka. Hilaren 18an 11:00-13:00 eta 17:00-19:00 tarteetan zabalik; hilaren 19an, 11:00etatik 13:00etara.

Hilak 18, ostirala

17:15. Gezala Auditoriumean, *Oilar bat dago zure teilatuan* haurrentzako txotxongilo emanaldia. 2 euro.

Hilak 20, igandea

19:30. Gezala Auditoriumean, *Zoaz bake santuan* antzerki obra, helduentzat, Txalo Produzioak taldearen eskutik. 8 euro.

Hilak 23, asteazkena

Sorpresa. Lezoko Jai Batzordeak egunean zehar adi egoteko eskatu die hurrei, haiei begirako sorpresa bat prestatu duela.

Hilak 27, igandea

19:30. 19:30. Gezala Auditoriumean, Myriam Perez Kazabon dantzariaren *Mutu* ikuskizuna. 8 euro.

Urtarrilak 5

12:00. Bekoerrotan kiroldegian, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Amaren intxaurrak* ikuskizuna. 4 euro. Aforo muga du saioak, beraz, ez da ohiko sarreara kopurua jarriko salgai.

**HAZI, HEZI ETA
BIZI EUSKARAZ**

Tel.: 943 514 804
info@lezoherrieskola.eus
www.lezoherrieskola.eus



LEZO INSTITUTUA

Tel.: 943 89 92 81
lezoinstitutua.hezkuntza.net
institutua@lezoinstitutua.net

BPXport

LEZOKO KIROL INSTALAZIOAK
Erabiltzaileen arteko distantzia, aireztatzea eta desinfekzioa bermatzeko neurriak egoerari egokitu.

lezo@bpxport.es - Tel.: 943510311
f BPXport Lezo @BpxportLezo

«Nola egin diezaioke aurre familia batek bizitzari, diru sarrerarik ez badu?»»

EDURNE MITXEO

LEZOKOAK MERKATARIEN ELKARTEKO KIDEA

Merkatarien elkarte berria sortu dute Lezon, Lezokoak. Mitxeko, herriko egoeraren balorazio bat egitera animatu den horietakoa da, baina beti beste kideen iritziak jasota.

Zer nolako egoera bizi du gaur egun Lezoko merkataritzak? Komertzio asko itxi al dira pandemia dela eta?

Egun bizitzen ari garen egoera kritikoa da. Martxotik zorrak besterik ez gabiltza pilatzen, eta maiatzean sasi *normaltasun* bati hasiera eman bazitzaion ere, gastu izugarriak gelditu dira zintzilik. Gure diru sarrerak oso kaltetuak geratu dira, batetik ezarritako neurriengatik, eta bestetik beldur-rengatik.

Gainera, Lezoko ostalaritzaren sektore guztia itxita egonda, kalean oso bizi gutxi dago, eta horrek ematen duen irudia ikaragarria da. Egoera oso konplikatu da, eta merkatarik askok larrialdietarako gordeta zuten dirua gastatu behar izan dute dagoeneko. Hala ere, oso eskertuak gaude herriko jendearekin, hasieratik oso gertuko sentitu ditugulako, horrek guretzat suposatzen duen guztiarekin.

Lezoko Udalak diru laguntzarik eskaini al du tokian tokiko mer-

katariek COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko? Nahikoa izan al dira zuen ustez laguntza horiek?

Martxoan pairatutako galerei aurre egiteko diru laguntzak urrian jaso ditugu. 1.500 euro izan dira, eta oso eskertuak gaude, baina argi dago ez dela nahikoa.

Hilabetero gastu fijo batzuk ditugu, jaso ditugun laguntzak soberan gainditzen dituztenak. Negozio ugari familiarrak dira. Nola egin diezaioke aurre familia batek bizitzari diru sarrerarik ez badute? Arazoa gastuak dira, gure negozioa itxita eduki arren gastu horiek ordaintzen jarraitu behar dugulako. Gainera, emandako diru-laguntzak hemorragia geldiarazteko tiritu hutsa dira. Erreskate plan bat da benetan beharrezkoa da, batez ere ostalaritza sektorean.

Lezoarrek erosketak herrian bertan egiten al dituzte, edo ohitura dute ondoko herri handira, Erreneria-Oreretara gerturatzeko?

Aitortu beharra dago Erreneria

oso gertu dagoela, eta alde horretatik bere eskaintza oso handia eta anitza da. Horrek egiten du pertsona batzuk bertara joatea erosketak egitera, hori horrela da. Zorionez ez dira denak, eta badira Lezon bertan erosketak egiten dituzten lezoar asko.

Guk gure zergak gure diru sarrekin ordaintzen ditugu. Diru sarrerak baditugu, zergak ordaintzen ditugu kaleak garbi egoteko, zerbitzu publikoak egoteko... Honen zer esan nahi du? Herriko jendeak herrian bertan inbertitzen badu herrian geratuko dira onura horiek guztiak.

Horrek herriko bizitza bultzatuko du, eta askoz errazagoa da ondoko dendan erostea herriko umeekin paseatzera atera bazara, edo zure lagunekin zerbait edateko gelditu bazara.

Zer egin beharko zen Lezon tokian tokiko erosketak bultzatzeko? Zer nolako inizatibak pentsatu dituzue Gabonetako kanpainari begira?

Lezokoak izena duen elkarte aurtan sortu dugu, herriko komertzioa biltzen duena: ostalaritza, dendak, zerbitzuak eta bostelakoak. Gabonei begira eta herriko komertzioa bultzatzeko asmoarekin, papeleta batzuk sortu ditugu herritarrek zozketa batean parte hartu ahal izateko. Elkarte osatzen dugunon artean osatutako saski erraldoi bat zozkatuko dugu.

Egia da hasi berriak garela, eta pandemiak ez duela batere laguntzen inizatibak eta jarduerak antolatzeke garaian. Baina baditugu ideia batzuk buruan, esaterako, gure produktuekin merkatu txikiak antolatzea, dendak kalera ateratzea, pintxoan ibilbide bat martxan jartzea, umeekin jolasak egitea...

Hori bai, babes handiagoa eskatzen diogu Lezoko Udalarri, horrela denok batera herriari bizia eman ahal izateko.



“

«*Merkatari askok
larrialdietarako
gordeta zuten dirua
gastatu behar izan
dute dagoeneko*»

• • • • •

«*Herriko jendeak
herrian bertan
inbertitzen badu,
bertan geldituko dira
onura horiek
guztiak*»

• • • • •

«*Hilabetero gastu fijo
batzuk ditugu, jaso
ditugun laguntzak
soberan gaintitzen
dituztenak*»

• • • • •

Denetik pixka bat Oiarzunen

Osasun larrialdiak eta horri lotutako dekretuak albo batera utzita, esan daiteke Oiarzungo Gabonetan denetik egiteko aukera izango dela. Kultura, kirola, aisia edo familiarterako abenturak dira herrian izango direnen osagaietako batzuk.

Hutsuneen artean, Txerri Eguna. Aurten ez da egingo. Baina hala ere, bertan izaten diren artisauek babesteko azoka birtuala antolatu du Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilguneak sare sozialetan. Hala, Facebook atarian (jarri *ttur-ttur.txerrieguna* bilatzailean) hala nahi izan duten sortzaile eta artisaunen gaineko informazioa publikatzen ari da Oiarzungo eragilea, kalean jarri behar zituzten postuek, sare sozialetan

behintzat, merezitako tartea izan dezaten.

Beste hutsuneetakoa, urteko azken igandean egiten den Elkartasun Lasterketa. Hutsunea zehazki ez, aurten beste era batera egingo dutelako. Izan ere, hilaren 27an (igandea) 10:00etatik

Haurren aisia ziurtatu du berriro Abaraxkak

Abaraxka ludotekak berriz ere haurren aisia eskaintza bermatzeko ahalegina egin du Gabonetan. Hala, asteburukoak ez diren egunetan edo ospakizun egun bereziak ez direnetan, hainbat jarduera prestatu ditu.

20:00etara euskal presoan aldeko kilometroak egiteko aukera izango da Done Eztebe plazan, fokua Joanes Larretxea herriko presoan jarrita. Han, ariketa fisikoa egiteko gailuak jarriko dituzte, eta herritarrek aukera izango dute presoan aldeko metroak gehitze-ko lasterka egiteko — edo ibiltze-ko— zinta, bizikleta estatiko edo ergometro bidez.

Kultura

Kultur arloan ere bada zer eginik. Hala, besteak beste, Ehuntze Sormen Espaziokoek ate irekien jardunaldiak dituzte hilaren 21etik 24ra, lokal berria ezagutarazteko. Gainera, disko estreinaldi bat jasoko du herriak: Nikolek eta Joxe Leonek *Elkarbizitza* diskoa aurkeztuko dute igande honetan, 18:00etan, elizan.



Larunbatean aurkeztu zuten Joanes Larretxeari elkartasuna adierazteko kirol jarduera. REBEKA RUIZ

Hilaren 24ra arte

Olentzeroren postontzia. Manuel Lekuona Bibliotekan Olentzerori eta Mari Domingiri gutunak uzteko postontzia jarrita dago. Internet bidez ere bidal daitezke gutunak: *olentzerota-mari Domingi20@gmail.com*.

Hilak 19, larunbata

12:00. Beheko Plazan, Gazte Aizkolariaren II. Xanisteban Saria egingo dute.

16:30. Abaraxka ludotekan, zinema saioa.

Hilak 20, igandea

18:00. Udaletxean, *Etixerik txikiena* haurrentzat antzezlan.

18:00. San Esteban elizan, Nikolek eta Joxe Leonek *Elkarbitzta* diskoa aurkeztuko dute.

10:00. Arditurrin, *Iparra galdu gabe* orientazio jolasa familientzat. 3 euro.

Hilaren 21etik 24ra

Ate irekiak. Ehuntze Sormen Espazioa ezagutzeko aukera. Ordutegia: 11:00-13:30 eta 16:30-20:00.



Joxe Leonek eta Nikolek diskoa aurkeztuko dute igandean. HITZA

Hilak 22, asteartea

16:30. Abaraxka ludotekatik hasita, mendi buelta egiteko aukera familian.

Hilak 23, asteazkena

16:30. Abaraxka ludotekan, kamiseten tailerra.

Hilak 26, larunbata

11:00. *Xabier Leten barrena* ibilbide biografikoa.

12:00. Auzoetan, dultzaineroen kalebuelta.

16:30. Abaraxka ludotekan, antzinako jolasak.

17:00. San Esteban elizan, Albo-ka taldearen kontzertu didaktikoa.

Hilak 27, igandea

10:00-20:00. Elkartasun Lasterketaren harira, presoaren aldeko kilometroak egiteko gailuak egongo dira jarrita plazan.

10:00. Arditurrin, *Iparra galdu gabe* orientazio jolasa familientzat. 3 euro.

Hilak 28, astelehena

16:30. Abaraxka ludotekan, oreka jolasak.

Hilak 29, asteartea

16:30. Abaraxka ludotekan, bererabilpen tailerra.

Hilak 30, asteazkena

16:30. Abaraxka ludotekan, zirkuitu jolasak.



Hilaren 26an egingo dute berriz ere Xabier Leten barrena ibilbidea. E.G.

«Amazonek komertzio txikiak lurperatzen ditu»

ANDONI LIZARRALDE ITTURRI MERKATARIEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Andoni Lizarralde uste du jendea kontzientziaztea dela gakoa, Amazon bezalako erraldoiek komertzio txikiak suntsi ez ditzaten. Oiartzungo tokian tokiko merkataritza bultzatzea ezinbestekotzat du.

Uste al duzue Oiartzungo komertzioaren egoera osasuntsua dela? Zein eragin izan du COVID-19ak herriko merkataritzan?

Pandemia aurretik nahiko lan egiten zela esango nuke, hori beti kontutan hartuta Oiartzun herri zaila dela merkataritza txikientzako. Pandemiaren kontu honekin, zailtasun hori handitu egin da. Aitortu beharra dago krisi honek modu ezberdinean kolpatu duela merkataritza.

Adibidez, arropa dende behar bada oso handia izan dute pandemia hasieratik, eta nire kasuan ortopedia denda bat dudala, salmenta jaitsiera ere nahiko sumatu da. Orain, jende gutxiago dator, esaterako, aulki bat erostera. Elikadura dendak kenduta, beste gremio guztietan bezeroen jaitsiera nabaritu da.

Orain dela bizpahiru aste Amazonek Oiartzunen bere zentro logistikoa ezarriko zuela iragarri zuen, Lanbarrenen zehazki. Nola baloratzen duzue merkataritza txiki zareten heinean enpresa handi horren erabakia?

Amazonen lurreratzea aspaldiko arazo baten pastean ginga ezartzea izan daitekeela uste dugu. Eragina izango du, ez soilik Oiartzunen, zonalde osoan eta Euskal Herri osoan orokorrean ere bai. Amazonek ez du hemen dirua uzten, lortzen duen etekin guztia

“

«Elikadura dendak kenduta, pandemiaren eragina ia gremio guztietan sumatu da»

«Amazonen kasuan hutsune juridikoak egon daitezke, txostenek esango digute zer egin daitekeen»

«Oiartzun herri zaila da merkataritza txikientzako, auzo sakabanatuak dituelako»

kanpora doalako. Bestetik, prezioak lurretik botatzen ditu, eta horrek eragina izango du tokian tokiko merkataritzan, komertzio txikiak lurperatzen dituelako Amazonek.

Gu horren aurka egiten saiatuko gara, Oiartzungo Udalak ere bere bidea egingo duen bezala. Ez badugu denon artean gelditzen, lehen komertzioek zituzten arazoak areagotuko dira, eta pixkanaka tokian tokiko merkataritza ixten joango dira.

Oiartzungo Udalak jakinarazi zuen txosten juridikoak eskatu dituela, baina legez ezin duela Amazonen ezarpena oztopatu. Ados al zaudete?

Bai, guk hasierako momentutik eskatu genion Oiartzungo Udalari, mesedez, txosten juridikoak egiteko, eta hori egingo dutela iragarri dute.

Beraien alde esan beharra dago egia dela ezin dutela Amazonen lurreratze hori oztopatu, enpresak eskatutako baldintzak betetzen baditu. Amazonen erabakia ez da udalaren gustukoa, baina txostenen eta balorazioen zain gelditzen gara, gure ustez Amazonen kasuan hutsune juridiko batzuk egon daitezkeelako. Guk egin beharrekoen aldetik, badugu beste zeregin bat oso inportantea dena, jendea kontzientziaztearena hain zuzen ere.

Oiartzun Oarsoaldean geografi-

koki isolatuen dagoen herria da. Egoera hori lagungarri izan daiteke oiartzuarrek herrian bertan erosketak egiteko?

Alde batetik negatiboa izan daiteke. Hainbeste auzo ezberdin eta sakabanatu direnez, askotan jendeak beste leku batera joateko ohitura hartzen du. Adibidez, Gurutze auzo batetik agian zuzenean Errenteriara edo beste leku batzuetara joateko ohitura egon daiteke, batez ere erosotasun kontuengatik.

Bestetik, baditugu alderantzizko kasuak. Aitortu beharra dago ez direla gehiegi, baina egon badaude. Oiartzundik kanpoko jendea badator podologoaren zerbitzuak jasotzera edo albaitariarengana. Pertsona horiek, egin beharrekoa egin ostean, herrian kontsumitzen al dute? Bada bai, kasuak ezagutzen ditugu, baina ez dira gehiegi.

Azkenik, nola aurreikusten duzue izango dela aurtengo Gabonetako kanpaina? Zer egin daiteke Oiartzungo merkataritza sustatzeko?

Urtero hainbat iniziatiba prestatzen ditugu merkatarien elkartetik. Aurten nobedade moduan botilak banatzen gabilta. Azken egunetan egutegiak banatu ditugu aldi berean. Honekin batera ere urtean zehar erosketak egiteko korgatxoak eta oso poltsa politak eman ditugu ere. Gabonetarako jarduera berezi bat antolatu dugu, prezio justuaren eskaparearena hain zuzen ere.

Komertzio guztietan erosteagatik boletoak banatzen dira, txartel horietan bezeroek telefono zenbakia eta izena jartzeko, eta eskaparetea zenbatetan baloratzen duten galdetzen zaie.

Azken berritasuna Pasaiako Laurak Bat eta Errenteriako Errenkoalde merkatarik elkarrekin elkarlanean antolatzen gabiltzan aldizkari txikia da, laster argitaratuko dena.





Antxon, bihar egitekoa zen artisauen azoka bertan behera utzi dute. Irudi hau ez da errepikatuko. HITZA

Hutsuneekin, baina aurrera

C OVID-19ak Gabonetarako antolatuta zegoen egutegia, Pasaian ere bai, hankaz gora jarri du.

Urte berezi honetan Pasaiaiko lau barrutietako eragileek lan handia egin dute behintzat ekitaldi gutxi batzuk aurrera eraman ahal izateko. Lau barrutietan ohikoak ziren San Tomas Azokak ez dira aurten ospatuko, orain arte egin diren bezala ez behintzat, eta adibidez, Donibaneko Itsas Mendiko txistularien kontzertu klasikoa ez da egingo. Horiek aurtengo hutsunen bi adibide soilik dira.

Donibanen ez dira faltako Olentzeroa eta Hiru Erregeak. Azken hauek barrutiko San Juan Bautista parrokian hartuko dituzte umeak, urtarrilaren 5eko arratsaldean. Bonantzako elizan jada ikus-

Aurten ez da Gabonetako Haur Jairik izango

27 urtez jarraian egin ondoren, aurten ez da Gabonetako Haur Jairik izango. COVID-19ak antolakuntzan eta aurrekontuan eragina izan du, eta horregatik, herriko erreferente zen jarduerarik ez da 2020an.

gai dagoen jaiotza urtarrilaren 7ra arte mantenduko da. Egunero dago irekita eliza, 10:30etatik 20:00tara arte. Bestetik, Zea Mays taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da Juanba Berasategin, Bixi-Bixik antolatuta. Leku berean ere *Kontukantari* fami-

lientzako ikuskizuna antolatua dago abenduaren 20an.

Badiaren beste aldean ere badiara ekitaldiak, San Pedron. Bertan ziurtatuta dago Olentzeroren eta Mari Domingiren presentzia, modu birtualean bada ere. Bideoa zabalduko dute 24aren aurretik. Hala, 19tik aurrera, alkateordetzako buzoia apainduko dute hurrek bertan gutunak utz ditzaten.

Antxon ezin izango dira korrikalariak ikusi Gabonetako Krosa bertan behera gelditu delako. San Tomas Azoka ere ez da ospatuko. Artisau azoka zegoen iragarritako egun horretarako, baina azkenean, bertan behera utzi behar izan dute antolatzaileek.

Era berean, Trintxerpen aurreko urteetan egingako hainba ospakizun bertan behera utzi behar izan dituzte.

Urtarrilaren 6ra arte.

Donibanen. Bonantzako elizan jarri duten jaiotza ikusteko aukera izango da. 10:30etik 20:00ak arte dago zabalik.

Hilaren 24ra arte

Donibanen. Udaletxe zaharrean, Mari Domingiri eta Olentzerori gutunak uzteko buzoia.

San Pedro. Alkateordetzan, Mari Domingiri eta Olentzerori gutunak uzteko buzoia.

Hilak 19, larunbata

Donibanen. 19:00etan, Juanba Berasategi aretoan, Zea Mays taldearen kontzertua. Sarrerak agortu egin dira.

Hilak 20, igandea

Donibanen. 18:30ean, Juanba Berasategi aretoan, *Kontukontari* familientzat ikuskizuna.

Hilak 24, osteguna

Donibanen. Olentzero eta Mari Domingiren bideoa zabalduko dute Interneteko hainbat euskarriren bitartez.

Trintxerpen. Olentzero eta Mari Domingiren bideoa zabalduko dute Interneteko hainbat euskarriren bitartez.

San Pedron. Olentzero eta Mari Domingiren bideoa zabalduko dute Interneteko hainbat euskarriren bitartez.

Antxon. 12:00etatik 14:00etara, Alkartasuna dantza taldearen Mari Domingi eta Olentzero Azokan egongo dira haurren gutunen zain. Aurrez txanda hartu beharko da: 10:00etatik aurrera har daiteke ordua, Azokan bertan.

HITZAren oharra

Pasaiake eragileak Gabonetako egitarauak osasun larrialdi egoerara moldatzen ari dira. Ekitaldi asko bertan behera gelditu dira. Horien berri eguneratua izateko: oarsoaldea.hitza.eus.



Donibaneko Zea Maysen kontzertuko sarrerak agortu dira. ZEA MAYS



Bihartik, gutunak utz ditzakete sanpedrotarrek alkateordetzan. HITZA



Gutunak Donibaneko udaletxe zaharrean utz daitezke. HITZA

«Udalak erraztasunak eman behar ditu negozioak irekitzeko garaian»

JUANMA PEREZ

LAURAK BAT MERKATARIEN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Pasaiaiko barrutietan merkataritzaren egoera oso ezberdina dela zehaztu du Laurak Bat-eko presidentek. Sektorea egiten ari den ahalegina nabarmendu du, eta pasaitarrak herrian erostera animatu ditu.

Pandemiak eragina handia izan du gurean. Baina, zein izan da eragina Pasaiaiko komertzioan orokorrean?

Badira merkataria asko egoera normalean baino askoz hobeto lan egin dutenak, batez ere itxita egon ez direnak. Baina bestetik, badira ere oso egoera txarrean egon diren merkataria. Horien artean, ostalaritza dago. Baina ostalaritza harago arropa dendak daude ere bai.

Jendeak denbora asko egiten du etxean, eta ez du ikusten arropa erakusteko aukerak egongo direnik, beraz, arropa eta osagarriak saltzen dituztenek gorriak ikusi dituzte pandemiagatik. Bestetik, etxean erabiltzeko objektu pila bat saltzen ari dira, etxeko tresna elektrikoak, sofak, koltxoiak... Denetarik dago.

Pasaia lau barrutiz osatuta dagoen udalerrria da. Zein ezberdintasun daude barrutien artean?

Barrutien arteko ezberdintasunak oso nabarmenak izan dira beti, eta pandemia garaian arazo hau areagotu egin da. Donibanen, esaterako, ostalaritza eta turismoa oso garrantzitsuak dira, eta COVID-19ak kalte handia eragin

“

«Instituzioetatik ematen diren diru laguntzak benetan gaizki pasa dutenentzat izan behar dira»

• • • • •

«Gazteak oso ohituta daude online erostera, gurera ekarri behar ditugu»

• • • • •

«Pasaiaiko Udalaren araudia zorrotzegia da, Gipuzkoako zorrotzenen artean dago»

• • • • •

die. San Pedrok bizi duen egoera Donibanekoaren oso antzekoa da. Pasaiaiko gainontzeko merkataritza guztia Antxon eta Trintxerpen dagoena da. Pasaiaik ez du erdigune komertzial konkretu bat, barruti bakoitzak berea duelako, eta horrek barrutien arteko mugikortasuna oztopatzen du, pertsona batek bilatzen duena ez badu bere barrutian lortzen, sarritan, Errenteriara edo Donostiara jotzen duelako.

Beraz, jende asko mugitzen da Pasaiaitik inguruko beste udalerrietara erosketak egitera, ezta?

Bai, behintzat hori da egin dugun azken merkatu ikerketak dioena. Aldaketa nabarmenak sumatzen ditugu adinaren arabera, ordea. Jende helduaren %60 inguruk Pasaian bertan egiten ditu erosketak, beraientzat askoz erosoagoa delako, eta beste lekuetara joateko garraibiderik ez erabiltzea erabakitzen dute. Baina beste askok, gazteak barne, Amazon bitartez edo beste udalerrietan egiten dituzte erosketak.

Kanpaina ugari egiten ditugu, batez ere jende gaztea erakartzeko. Gazteen sektorea oso urrun daukagu eta garrantzitsua da



ERIK SALAZAR

hauek gurera erakartzea. Lehen esandakoa, online plataformak dira gure etsai handiena momentu honetan.

Zer egin beharko litzake pasaitarren ohiturak aldatzeko, herrian eros dezaten?

Udalak erraztasun gehiago eman behar ditu negozioak irekitzeko garaian. Pasaia osoan lokal asko itxita daude, hori oso nabaria da. Pasaia Udaleko araudia ez da batere malgua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zorrotzen artean dago. Lokalen neurriak, azalera, altuerak... Baldintza

guztiak betetzea zaila izaten da. Horretaz aparte, hutsik dauden lokalak txukun egon behar dira, behintzat erosteko erakargarriak izateko.

Udalak hainbat diru laguntza eskaini ditu dagoeneko. Nahikoak al dira zuen ustez? Zer gehiago egin dezake udal gobernuak bizi den egoeran herriko merkatari bultzada emateko?

Lehenik eta behin gogorazi beharko genuke Pasaia herri pobrea dela, eta udalaren egoera oso antzekoa dela. Pasaia Udalak ahal duena egin du. Egia da konfina-

mentu garaian zerga batzuk eten zituztela, baina orain ordaindu behar izan ditugu. Gure partetik zerga horiek ez ordaintzea proposatu genuen, baina udal gobernutik jakinarazi ziguten hori legez kanpoko zela.

Eusko Jaurlaritzak ere laguntza eman ditu, baina modu indiskriminatuan egin du banaketa. Uste dut benetan gaizki pasatu dutenek jaso behar dituztela laguntza hauek. Nik, esaterako, uko egin diet diru laguntza hauei, denda irekita eduki ahal izan dudalako.



Era birtualean egin ahal izango da Errenteria-Oreretako San Silbestrea, hilaren 18tik 31ra. CARRERA

Izerdia bai, baina aldaketekin

Gabonetako egitarauen menuetan ezinbestekoak bihurtu dira kirol jarduerak. Horien artean nabarmenenak izaten dira abendu bukaera aldera antolatzen dituzten herri lasterketak, eta zehazki, urteko azken eguneko San Silbestre karrerak. Aurten, ez da gisa horretako lasterketarik izango.

HITZA-k konfirmatu ahal izan duenez, Irungo Gabonetako Krosa, Pasai Antxoko Gabonetako Krosa, eta Hondarribiko San Silbestre lasterketa ez dira egingo. Gainera, bai Antxon zein Lezon antolatzen diren haurrentzako krosak ere (hilaren 31n egitekoak ziren, goizez) ez dira egingo. Oiarzunen eta Errenteria-Oreretan, ordea, egoerara moldatu dira eta beste era bateko proposamenak

landu dituzte, urtea izerditan eta elkartasun keinuekin bukatu ahal izateko.

COVID-19aren eragina oso nabarmen izan da gizartearen sektore guztietan, ekonomikoetatik hasi, kulturaletatik jarraitu, eta jendartearen ohituretaraino. Moldatzea, egokitzea beharrezko izan da kasu askotan.

Oiarzun

Urtea bukatu baino lehenago, Oiarzunen presoak etxeratzearen aldeko herri lasterketa egin ohi dute, Elkartasun Lasterketa bezala ezaguna korrikalarien artean. Urteko azken igandean izan ohi da. Aurten ere hala da, baina beste era batekoa. Hori bai, euskal presoen egoera ez dute ahaztuko: bereziki gogoan edukiko dute Joanes Larretxea herriko presoa hilaren 27ko saiakeran.

Osasun larrialdi egoera dela eta, aurten ezin izango da ohiko formatuan egin, hau da, ez da lasterketarik izango, ez helduena ezta haurrena ere. Hala ere, presoen aldeko elkartasun keinua egingo dute, kirolaren ikuspegitik: maratoia egingo dute. Herritarrek txandaka egiteko moduko maratoia izango da. Edonork parte har dezake.

10:00etatik 20:00etara bitartean, Done Eztebe plazan korri eta ariketak egiteko tresnak jarriko dituzte (ergometroa, korri egiteko zinta, bizikleta estatikoa eta horrelakoak), kilometroak pilotzen joateko. Parte hartzaile bakoitzak ordu laurden emango zinta, ergometro edo bizikleta estatikoaren gainean. Parte hartu nahi dutenei kamiseta urdina jantzita eramateko eskatu diete.

Egitasmoko partaide izateko

izena eman beharko da aurretik, Elorsoro kiroldegian. Horretarako epea irekita dago, eta hilaren 27ra arte zabalik izango da. Bertan bakoitzak nahi edo ahal duen orduan hartu ahal izango du txanda edota kirol tresna.

Erreteria-Orereta

Ez dute urtea ohi moduan amaituko aurten Erreteria-Oreretan. COVID-19ak ez du horretarako aukera emango eta San Silbestre lasterketa, klasikoa, ezagutzen dena behintzat, ez da egingo. Haren orde, lasterketa birtuala antolatu du Erreteria Atletismo Taldeak (EAT). Eragileak argi du mugitzen jarraitu behar dela, aktibo izaten jarraitu osasuntsu egoteko. Hilaren 28tik 31ra egin ahal izango da EATren San Silbestre birtuala. Haurren lasterketak, ordea, ezin izango dituzte antolatu.

Ez gaitzala ezerk geldiarazi lelopean egingo dute lasterketa birtuala. Familia batzuk ezingo direla aurten elkartu esan du EATk, eta San Silbestreak leihoa ireki nahi duela: «Denak urte amaieraren bueltan, gauden lekuan gaudela, ekitaldi honetan elkarrekin parte hartzeko».

Interesdunek izena eman behar dute lehenik EATren webgunearen bitartez (www.atleticorenteria.com), eta argibideak jarraitu ondoren, deskargatu behar den sakelako telefonoetarako aplikazioan. 12 euroko prezioa du izen

emateak. Korrikalariarentzat materiala nola jaso, eta kirol proposamenaren atal askoz gehiago ikusteko aukera dago aplikazioa horretan. Gainera, aurten, kamiseta edo musuko gehiago erosteko aukera eskainiko diete partaide nahiz nahi duten guztiei, opari bereziren bat egin nahi dutenek aukera izan dezaten.

Jaitsi behar den APPA *Rock-hesport* da. Izen emate errezibotan azaltzen den lokalizadorea sartu beharko dute parte hartzaileek eta entrenatzen hasi. Entrenamenduak eskuko telefonoarekin egiten badira, rankinak eta denborak ere pilatuko dira aplikazioan.

Kamiseta, musukoa edo dortsalak abenduaren 21eko astean hasiko dira banatzen antolatzaileek, EATren lokalean, behar bezala jakinaraziko duten ordutegian. Oarsoaldetik kanpo bizi direnekin adostu egingo dute nola bidali haiei dagokien materiala.

Izena emateko epea, inoiz baino laburragoa da: gaur bukatuko da. Ohiko San Silbestreko iniziatibei eutsiko diete: bi lasterketa (3,5 eta 7 kilometrokoak), ohiko sailkapena, sari banaketa, mozorrorik originalenari saria... Baina dena birtualean.

Gainera, Juneren Hegoak elkarrekin duen konpromisoa ere mantenduko du aurten EATk, eta inskripzio bakoitzeko euro bat elkarte horri emango diote.

Eta 2021 urtearen hasieran, zer?

Zaila da, oso, aurreikustea 2021eko herri lasterketen egutegia (mendikoak eta asfaltoak) zer nolakoa izango den. COVID-19aren eraginaren bila-kaeraren arabera erabakiak hartuko dituzte osasunaz arduratzen diren agintariek, eta ikusi beharko da, erabaki horiekin, 2021eko egutegia zein den.

Oarso Bidasoan, urteko lehen herri lasterketa Donibaneko Itsas Mendiren Mitxintxolara Igoera izan ohi da, urteko bigarren igandean izan zen iaz.

Iazko Lezo-Jaizkibel lasterketa (otsailaren 16an egin zuten), Oarso Bidasoko azken mendi lasterketa izan zen 2020an, koronabirusak beste guztiak bertan behera uztera behartu zuelako. Antolatzaileek HITZA-ri jakinarazi diote ez dutela oraingoz 2021eko edizioari buruzko erabakirik hartu.

Bestalde, Bidasoa Atletismo Taldeak (BAT) Irunen antolatzen duen maratoi erdia (otsailaren 16an egin zuten iaz), koloan dagoela jakinarazi dute. «Gaur-gaurkoz ia ezinezkoa da maratoi erdia behar bezala antolatzea», esan dute antolatzaileek.



Lasterketarik ez, baina elkartasun kilometroak bai Oiartzunen. HITZA



Mitxintxolako Igoera, iaz. HITZA

Euskarazko produktuak



Harpidetu gure buletinerara eta azken produktuak ezagutu!

HARPIDETU



PAPEREZKO EDIZIOA



PDFa
DESKARGATU

Euskarazko produktuen katalogoa Internetez eta paperean zabaltzen ari dira. 7.567 produktu daude. HITZA

Euskarazko eskaintza, handia

Kalean da euskarazko produktuen katalogo berria. 0 eta 16 urte arteko haur eta gazteei begirako produktuekin osatutako gidara musika, informatika, filmak, liburuak, aldizkariak, jostailuak, jokoak eta web helbideak bildu dituzte: 7.567 produktu daude orotara. Gero eta

gehiago dira aisialdia, ikasketak eta bizitza euskaraz egin nahi dutenak, eta euskarazko eskaintzak bilatu eta baliatzen dituztenak, Oarsoalde Garapen Agentziako Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez. Beraz, Gabonetan euskarazko produktuak oparitu nahi badira, horretarako aukera handia dago katalogoa.eus-en.

Katalogoaren helburua da gura-

soei haurrentzako euskarazko produktuak eta gazteei euren gustuko euskarazko produktuak aukeratzeko eta bilatzen laguntzea. Euskarazko katalogo hori Euskal Herriko beste hainbat udalekin elkarlanean atera dute Oarsoaldeko lau udalek.

Papereko formatuan Oiartzungo eta Pasaiako HH, LHko 1. Mailako eta DBHko 1. Mailako ikasleei banatu diete, eta Oarsoaldeko guztiei, berriz, formatu digitalean bidali zaie, katalogoa online kontsultatzeko.

Dendak

Online katalogo horrez gain, Oarso Bidasoan badira tokiko dendak euskarazko produktuak saltzen dituztenak. Tokian tokiko udalek koronabirusaren ondorioei aurre egiteko jarritako iniziatiben barruan, bertako dendetan kontsumitzeko bonuak daude. Hala, horiekin, euskarazko produktuak ere eros daitezke eta kostu osoaren arabera deskontuak eskura daitezke abian diren laguntza bonuei esker.

ikusi-makusi
ZURE JOSTAILU DENDA

- Jostailu hezitzaileak
- Punta-puntako markak
- Kalitatezko jostailuak

Morrangilleta 6, behea - 943 52 88 53 - Errenteria

‘Oiartzungo Ihotik’, etxean

Joatear den 2020an era kolektiboan egin ziren azkenetako ekitaldiak, jai girokoak behintzat, inauteriak izan ziren. Oiartzunen ere egin zituzten *normalak*, eta nola ez, herriko propioak: Ihoteak. Zaila da aurreikustea 2021ean intxixuak, sorginak, Zomorrozinkoa edo suzko akerra herrian izango ote diren, pandemiagatik. Baina kalean ez badaude ere, etxean izateko aukera dago. Izan ere, Abaraxka Oiartzungo ludotekaren ekimenez, *Oiartzungo Ihotik* karta jokoa egin eta salgai jarri dute.

Ludotekako Nekane Martiarenak adierazi duenez, martxo-apirilko konfinamenduak badu zirikusirik karta jokoa sorrararekin: «Loraldia izan dugu ludotekan. Konfinamenduan denoi sortzaile sena atera zaigu, Ihoteen karta jokoa ideia orduan sortu zen, apirilaren erdialdean».

Nora Velez del Burgoren lagun-

tzarekin sortu dute jokoaren funtsa, eta bertako karten eta bestelakoen diseinua Dixidu diseinu grafiko estudioko Eneko Salaberriak egin du. Ilustrazioak Iosu Mitxelenaren gain gelditu dira. Oiartzungoak dira Ihoteak. Baina

Mila kutxatxo jarri dituzte saltzeko, hainbat tokitan

Oiartzungo Ihotik karta jokoa-ren mila kutxatxo jarri dituzte salgai, 15 euroren truke. **Oiartzunen honako tokietan eros daitezke: Abaraxka ludotekan, Dixidu diseinu grafikoan, Elizalde Herri Eskolan, Haurtzaro Ikastolan, Ehuntze espazioan, Intxixu AEK euskaltegian, Labore Oarson eta Oiartzun Irratian. Hondarribiko Txispum zentro ludikoan ere jarri dute saltzeko.**

egileek uste dute udalerritik gaindiko dimentsioa duela, izan ere, Euskal Herriko kultur ondareari ekarpena egin nahi izan diote karta jokoa-rekin.

Xehetasunak

Ludotekatik azaldu dutenez, ez karta jolas soila: «Ilusio, mimo eta maitasunez sortu eta landutako baliabide ederra da. Baliabide diogu, gure herriko ohiturak eta kultura, jolasean, era kolektiboan, euskaraz, hezkidetzan... jaso eta transmititzeko modua delako».

56 kartako sorta ez da bakarrik etorriko. Kutxa baten barruan eskura daitezke, eta *Oiartzungo Ihotik* jolasean aritzeko argibideak ematen dituen oharra dauka. Horrez gain, liburuxka bat dakar, Ihoteen historia azaltzen duena luze eta zabal.

Kartetan oiartzuarren aniztasuna islatzeko saiakera egin dute. Ion Zabaleku *Zapo*-ri ere keinua egin diote.



Eneko Salaberria Dixidu diseinu grafiko estudiokoa eta Nekane Martiarena Abaraxkako kidea. E. GARTZIA

Geroz eta gutxiago falta da **OARSO BIDASOKO HITZA**ren astekari berriak argia ikusteko

Astekariaren irudi berria
zurekin ospatu nahi dugu eta horretarako
zozketa bat prestatu dugu

**Parte har ezazu gure webguneetako
zozketan eta irabazi sari sorta eder hau:**



- Errigorako kaxa zuria
- Labore Txingudiko otarrea eta bazkidetza bat
- Pagoako 12 garagardoz osaturiko kaxa
- Eskualdeetako 8 museoetara joateko bi sarrera



Zozketan parte hartzeko sartu gure webguneetako
atal berezian, eman ezazu izena, eta parteka ezazu zure
sare sozialetan **#oarsobidasokohitza** traola erabiliz.

Parte hartzeko epea urtarrilaren 7a arte egongo da zabalik. Ez galdu aukera!

Jarrai gaitzazu sare sozialetan, bat egin gurekin!

